

GIZARTEA ▶

# Arartekoak esan du Oianguko Kontzesioa «baliogabea» dela

Udalbatzak kontratua «bertan behera utzi behar du», erakundearen arabera



Iñigo Lamarka Arartekoa Oiangu Bizirik plataformako bi kideekin, joan den maiatzeko bileran. HITZA

MAIDER DEL OLMO

Herritarren defendatzaile den Arartekoaren esanetan, «Udalbatzak kontzesio-kontratua baliogabetu beharko luke», Oianguko proiektuan. Arartekoaren esanetan, «Ikenari egi-

niko kontzesio-hitzarmenean hainbat akats eta hutsune daude». Horien artean honako hauek aipatu ditu: «Oiangu parkeari erabilera berriak ematea erabaki izana dago-kion Plan Berezia izapidetu gabe, kontratuaren xedea ze-

haztugabea izatea eta enpresak proiektua aurrera eramateko duen gaitasun edo kaudimen eza».

Joan den maiatzean bildu ziren Oiangu Publikoa eta Bizirik plataformako kideak Iñigo Lamarka Arartekoarekin, eta

hainbat eskaera egin zizkieten. Ordiziako Udalak Ikena enpresari Oianguren Aisiagunea proiektua (golfa, igerilekua eta paint-ball-a) garatzeko emandako kontzesioari buruz azterketa egin zezan eskatu zioten. Aratekoak orain erantzun du.

Oiangu Publikoa eta Bizirik taldeak azaldu duenez, «honegatik guztiagatik espero dugu Ordiziako Udalak bere erabakia zuzendu eta Arartekoaren gomendioa betetzea, Ikenari eginiko kontzesio-hitzarmena baliogabetuz».

## Hitzaldia, bihar

*Oianguko proiektua: herritarren parte-hartzea* hitzaldia eskainiko dute bihar Barrena kultur etxean. Gaztelaniaz izango da hitzaldia. Honako hauek hartuko dute parte: Jesus Rubio soziologoa eta Donostiako Haritzalde natur taldeko kidea, eta Cesar San Juan Euskal Herriko Unibertsitateko Ingurumen eta Psikologia irakaslea. Hitzaldia 19:00etan izango da.

Plataformatik deialdi zabala egin dute jendea hitzaldira gerturatzen, eta herritar bakoitzak bere ekarpena egitera gonbidatu dute, era berean.

MENDIA ▶

## Gipuzkoako birako 18. etapa egingo dute

Hogeita bat kilometro ditu ibilbideak; Aranon hasi eta Arritxulegin bukatuko dute

M. DEL OLMO

Ordiziako Mendizaleak elkarteko lagunek Gipuzkoako Biran 18. etapa egingo dute igandean. Ibilbideak guztira 21 kilometro ditu, eta honako hau da: Arano-Arranbide-Gorri-Kauso-Oianleku-Bian-ditz-Arritxulegi. Antolatzaileen esanetan, «Aranotik aterako gara Suro auzoarekin lotzen duen bide zaharretik. Añarbe gaineko panoramiko etengabea da beherantz jotzen duen bide batetik. Iparralderantzko norabidean, pista batetik jaitsiko gara. Eskuinean kokatutako hainbat mugarritatik pasako gara: Trinitatea, San Pablo, San Andres, San Simon, ... Etapa luzea da eta ez dago non gelditu», eman dute jakitera Ordiziako Mendizaleek.

Goizeko 07:30ean aterako dira elkartearen egoitza aurretik. Ibilbidean parte hartzeke aurrez izena ematea beharrezkoa dela gogorarazi dute. Horretarako elkartera jo besterik ez dago.

UDALA ▶

## Euskara hutsez aritu nahi dutela azaldu dute herritarren ia laurdenak

Udalarekin zein hizkuntza erabili nahi duten jakiteko galdeketa egin du Euskara Zerbitzuak

M. DEL OLMO

Udaleko Euskara Zerbitzuak galdeketa egin du herritarren artean, Udalarekin idatzizko harremanak zein hizkuntzatan izan nahi dituzten jakiteko.

Euskara Zerbitzutik azaldu dutenez Ordizian herritarren ia laurdenak (%23,5) udalarekin euskara hutsez aritu nahi du idatzizko paperetan. 18 urteko gazteetan portzentaia altuagoa



Ordiziako udaletzeko langileak. MAIDER DEL OLMO

tenak. Kasu horretan udaletxera deitu edo joatea aski dute, eta beren nahia adierazi», esan dute Euskara Zerbitzutik.

## Errolda eguneratua

Udalarekin harremanak euskaraz izan nahi dituztenen datu-basea sortuta dago, eta hori eguneratzen jarraituko dute, Ordizian erroldatzen denari aukera hori emanez eta, urtero-urtero, 18 urte betetzen dituztegunen joz.

iragarki laburrak ▶

### OPARI

Cocker beltza.  
Bost hilabetekoa.  
943 16 18 75.

### LANPOSTUA

Kamarera. Beasaingo taberna batean hitzarmen bidez lan egiteko kamarera behar da. 685 782 717.

da, %66koa, alegia. 1987. urtean jaiotako 75 gazte daude herrian erroldatuta guztira; horietatik 31k euskara hutsezko aukera eginda zeukaten lehendik; eta gainerako 44etatik 19k

egin dute euskararen alde azen inkestan.

«Ziurrenik Ordizian bizilagun gehiago ere izango dira udalarekin idatzizko harremanetan euskaraz aritu nahi du-